

Jesús Pejenaute Grávalos

Milagron jaio zen 1955ean, ezkondata dago eta seme eta alaba bana ditu.

Enpresa-ikasketak egin zituen Bartzelonako Unibertsitatean (1973-1978), eta masterra egin zuen Goi Zuzendaritzan, PADEko IESEn Madrilen (2005-2006); masterra du ere Coaching-en, European Coaching Center-en (ECC) egin zuena 2009an. Negozioko zuzendari Viálogos Consultoría (2008-2010) enpresarekin lanean aritu da eta Visa España-ko eta Madrilgo Euro 6000-ko kontseilaritzako kide izan da (2004-2008)

Bere ibilbide profesionala Faresa Bartzelonako enpresan egin zuen zazpi urtez, Inelbe SALen bihurtu zena. Ondoren banku-sektorean lan egin zuen, bi urtez Bankinter-en eta 25 urtez Caja Navarra-n. Finantza-erakunde horretako ibilbideari Bartzelonan ekin zion saltzaile, eta geroago Bulegoko zuzendari bihurtu zen (1982-1986), Zonaldeko zuzendari eta Kataluniako Eskualdeko zuzendari (1982-2002). 2001ean Iruñera jo zuen zuzendaritza-arloan erantzukizuneko postuak betetzeko, eta CANen Merkataritza Arloko zuzendariorde nagusia izan zen (2002-2008)

2010eko maiatzetik gaur arte Zuzendaritzaren Aurrerabiderako Elkarteko (Nafarroako APD) zuzendari izan da Nafarroarako, eta, kargu horrekin batera, enpresa handietarako Transformazio-arloko aholkularitza-lanak egin ditu. 2012ko apiriletik, gainera, SODENA enpresa publikoko kontseilaria da.